

Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?

Bezeroengana helarazteko, “kanalak” erabiliko ditugu. Kanal bezeroarekiko harreman guneak dira eta hiru motatakoak existitzen dira: komunikazio-kanalak, banaketa-kanalak eta salmenta-kanalak. Kanalak bost fasez osatuta daude: pertzepzioa, ebaluazioa, erosketa, entrega eta salmenta ondorengoa. Gure kasuan, aplikazioan gune berezi bat egongo da eta handik gure bezeroek iritziak eta proposamenak bidaliko dizkigute. Guk, iritzi hauei buruz hausnartu ondoren, horien arabera hainbat hobekuntza egingo ditugu.